



INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA
ETXEBIZITZA SAILA
Ingurumen Sailburuordetza
Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACION TERRITORIAL Y VIVIENDA
Viceconsejería de Medio Ambiente
Dirección de Administración Ambiental

EBAZPENA, 2020ko otsailaren 17koa, Ingurumen Administrazioaren zuzendariarena, zeinaren bidez formulatzen baita Donostiako eta Pasaiaiko udal-mugarteetan Ulia mendia babesteko eta kontserbatzeko Plan Bereziaren ingurumen-ebaluazio estrategikoaren irismen-dokumentua.

AURREKARIAK

2019ko urriaren 31n, Ulia mendia babesteko eta kontserbatzeko Plan Bereziaren ingurumen-ebaluazio estrategikoaren irismen-dokumentua emateko eskaera egin zuen Donostiako Udalak, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorrak (otsailaren 27ko 3/1998 Legea) eta Ingurumen Ebaluazioari buruzko Legeak (abenduaren 9ko 21/2013 Legea) xedatutakoarekin bat etorriz.

Eskabideari dokumentazio hau erantsi zitzaion: Planaren zirriborroa, sektoreko legerian eskatutako dokumentazioa, hasierako dokumentu estrategikoa eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren (planen eta programen ingurumen-eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena) V. eranskineko formularioa.

Ukitutako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsultatzeko tramitea egin zen, halaxe zehazten baita abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan eta planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 9. artikuluan.

Jasotako txostenak aztertuta, egiaztatu da ingurumen-organoak bazituela behar beste judizio-elementu ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko, bat etorrita hala abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluekin eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 10. artikuluekin.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK:

Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da ingurumenean ondorio adierazgarriak izan ditzaketen planen ingurumen-ebaluazioa arautuko duten oinarriak ezartzea, ingurumenaren babes-maila handia bermatuz, garapen jasangarria sustatze aldera.

Halaber, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko 1998ko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorren 42. artikuluen arabera, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioek behar bezala bermatuko dute, besteak beste, helburu hau betetzen dela: hautabide egokienak hautatu ahal izateko, plangintza-prozesuaren lehen faseetan egingo dela ingurumenaren gaineko eraginei buruzko analisia, betiere kontuan izanik jardueren ondoriozko eragin metatzaile eta sinergikoak.

Era berean, Ingurumen-ebaluazioari buruzko 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, 6.1.a) eta 6.1.b) artikuluetan ezarritakoa aplikatuta, planei eta programei ere ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta egingo zaie, baita haien aldaketei ere, baldin eta administrazio publiko batek onartzen baditu eta horiek legezko edo arauzko xedapen batek aginduta egiten eta onartzen badira. Kontuan izango da, baita, legez ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa bete behar duten proiektu, plan eta programak onartzeko esparrua ezartzen ote duten, Natura 2000 Sareko guneei eragiteagatik ebaluazio bat behar dutelako, 42/2007 Legeak aurreikusitako baldintzetan (42/2007 Legea, abenduaren 13koa, Natura Ondare eta Biodibertsitateari buruzkoa).

Otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 46.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, ebaluazio bateratua egin behar da (ingurumen-ebaluazio estrategikoa) arauaren I. eranskineko A) apartatuan jasotako planei

dagokienez, eta plan horien artean sartzen da Ulia mendia babesteko eta kontserbatzeko Plan Berezia.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legeak xedatzen duenez, plan baten ingurumen-ebaluazio arrunta hasteko, beharrezkoa da ingurumen-organoak ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena zehaztea, ukitutako administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egin ostean. Arau horrek 18.1. artikuluan xedatzen ditu hasiera-eskabideari erantsi beharreko dokumentuak, eta, abenduaren 9ko 21/2013 Legeari aurka egiten ez zaionean, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8. artikulua zabaltzen eta osatzen du hasierako dokumentu horri erantsi beharrekoaren edukia.

Amaitzeko, ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena zehazte aldera, aintzat hartu dira 2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak IV. eranskinean jasotako eskakizunak, ingurumen-azterketa estrategikoaren edukari buruzkoak, bai eta 2012ko urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak I. eta II. eranskinetan jasotakoak ere, erreferentziako dokumentuaren edukari eta ingurumen-jasangarritasunari buruzko txostenaren edukari buruzkoak, hurrenez hurren.

Orain arte azaldutakoari jarraikiz, espedienteko txostenak aztertu dira, eta xedapen hauek guztiak ikusi dira: 3/1998 Lege Orokorra, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko; 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena; 77/2017 Dekretua, apirilaren 11koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena, eta aplikatzeko den gainerako araudia. Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa. Ulia mendia babesteko eta kontserbatzeko Plan Bereziaren ingurumen-ebaluazio estrategikoaren irismen-dokumentua formulatzea, ingurumen-ondorioetarako soilik, eta honako baldintza hauen arabera:

1.- Planaren xedea

Ulia mendia babesteko eta kontserbatzeko Plan Bereziak garatu egiten ditu Donostia eta Pasaiaiko udal-mugarteetan indarrean dagoen antolamendu orokorrak ezarritako egitura-zehaztapenak, espazio horri dagozkionak, hain zuzen. Zentzu horretan, Donostiako HAPOak, 2010eko azaroaren 19an onartu zen behin betiko, arau partikularretan ezarri du AN «NU.02 Ulia» eremurako plan berezi bat formalizatzeko beharra. Pasaiaiko Arau Subsidiarioek, 1997ko urriaren 30ean onartu baitziren behin betiko, Plan Bereziaren idazketarekin lotzen dute eremuaren behin betiko antolamendu zehatza. Hala, Plan Berezia modu bateratu eta koordinatuan garatu behar dute udalerriek, Donostiako (Donostialdea-Bidasoa Beherea) Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialaren 40.e) eta 41.2 artikuluen arabera (2016ko uztailaren 27an behin betiko onartua).

Zentzu horretan, Plan Bereziaren helburu nagusiak dira natura-ingurunea kontserbatzea eta babestea, fauna eta flora espezieen desagertzea saihestea, heziketa eta dibulgazioa bultzatzea, kultura-ondarea babestea, aisialdia eta aisialdiko azpiegiturak arautzea, baliabide naturalen aprobetxamendua antolatzea eta eraikuntza-erabilera arautzea. Planak aurreikuspen hauek hartzen ditu barnean:

- a. Eremuaren zonakatze xehatuaren-proposamena gune hauetarako: babesgune bereziak, ekosistemen hobekuntza, baliabide naturalen aprobetxamendu estentsiboa, ekipamenduak eta hirugarren sektoreko jarduerak. Zona horietako bakoitzerako eraikuntza- eta erabilera-erregimena ezartzen ditu Planak.
- b. Zenbait jarduketaren proposamen barne hartzen dituen ekintza-plana definituta dago, ildo hauei dagokienez: natura-balioak babestea, hobetzea eta lehengoratztea; paisaia-balioak eta kultura-

ondarea babestea eta lehengoratzea; eta ingurumen-arloko dibulgazioa eta sentsibilizazioa bultzatzea.

Hauek dira, Planean aurreikusitako jarduketean artean, ingurumenean afekzioak eragin ditzaketenak:

- A.15. Ibilgailu-sarbide nagusiak antolatu eta eraberritzea.
- A.17. Monpas puntan eta gotorlekuan oinezkoen sarbidea egokitzeko aukera aztertzea.
- A.18. Monpasen oinezkoentzako pasabidea formalizatzeko egokitasuna aztertzea.
- A.19. Tranbiaren bide zaharra berreskuratzea oinezko ibilbide irisgarri gisa.

2. Ingurumen-helburu estrategikoak, printzipioak eta aplikatzeko jasangarritasun-irizpideak.

Plana egiteko funtsezko oinarritzat hartuko dira IV. Ingurumen Esparru Programa 2020ren helburu estrategikoak eta jarduera-ildoak. Bereziki baloratuko da Planak nola barne hartzen dituen jarduketa-ildo hauek:

- 1.1 jarduteko lerroaren 1. jarduketa. Honako beharrizan hau aurreikusi da: *«Plangintza eta arautegi sektorial desberdinak berrikustea eta lerrotatzea, ekosistemak, haien fluxuak eta zerbitzuak (bereziki, nekazaritza-, basogintza- eta arrantza-politikan eta lurraldea antolatzeko plangintza-politiketan) kontserbatzea ahalbidetuko duten ingurumen-aldagaiak gehitzeko. Garrantzi bereziko kasu bat Natura 2000 Sarea eta ekosistemen zerbitzuak integratzea da».*

- 1.5 jarduteko lerroaren 14. jarduketa. Beharrezkotzat jotzen da *«lurraldearen kudeaketan (lehen sektorean eta lurralde-plangintzan batez ere) biodibertsitatearen ikuspuntutik lagunkoiak diren eguneroko praktiken ezarpena bultzatzea».*

Horretaz gain, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorrean bildutako irizpideak (otsailaren 27ko 3/1998 Legea) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuan bildutakoak jaso beharko ditu.

Urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 2. artikulua aplikatuz, honako hauek dira Planaren ingurumen-ebaluazioa gidatu beharko duten garapen jasangarriaren printzipioak:

- Habitata eta espezieak, ingurumen naturala eta konektagarritasun ekologikoa zaintzea eta hobetzea.
- Natura-arriskuak gutxitzea.
- Natur baliabideen erabilera jasangarria sustatzea: ura, energia, lurzorua eta materialak.
- Ur-masen egoera ekologiko ona lortzea, bai eta baliabidearen erabilera jasangarria ere.
- Paisaia- eta kultura-ondarea kontserbatu eta hobetzea.
- Klima-aldaketaren aurreko kalteberatasuna gutxitzen laguntzea, kaltea arintzeko neurriak eta egokitzeko neurriak integratuz.

Era berean, kontuan hartuko dira ingurumena babesteko irizpide, helburu eta zehaztapen hauek: Planari aplikagarri zaizkion lurralde-antolamenduko planetan eta plan sektorialetan finkatutakoak.

Hain zuzen ere, Planak arreta berezia eman behar die Natura 2000 Sarearen kontserbazio-xede diren elementuei lotutako helburu eta kontserbazio-neurriei, ekainaren 4ko 357/2013 Dekretuan ezarrita baitaude; izan ere, dekretu horren bidez izendatzen dira Ulia (ES2120014) eta Jaizkibel (ES2120017) kontserbazio-eremu berezi, eta eremu horien kontserbazio-neurriak onartzen dira (2013ko azaroaren 25eko EHAA, 224. zk.). Bereziki kontuan hartuko dira honako helburu hauei lotutako neurriak:

4. helburua. Uliako eta Jaizkibelgo kostaldeko habitat ahulak eta bertako itsas hegaztiak zein flora halokasmo-fitikoa zorrotz kontserbatzea.

5. helburua. Otalurren gaur egungo azaleraren kontserbazioa bermatzea, bai eta flora-espezieen populazio egonkorrena, gutxienez inbentariatuta eta arriskuan dauden espezieena, eta ingurune horietan ohikoak diren fauna-espezie ornodunena ere.

3. Esparru geografikoa eta ingurumen-arlo garrantzitsuak

Planaren antolamendu-eremuak 3,97 km² inguruko azalera hartzen du, Donostia eta Pasaia udal-mugarteei dagozkien lurretan. Itsas mailatik 225 m-ko altuerara bitarte hedatzen da, erliebe malkartsua dauka eta azaleraren zatirik handiena oso aldapatsua da. Trantsizioko landa-ingurunea da, Donostia eta Pasaia hiri-bilbeen artean kokatua. Eremuaren iparraldean honako ingurumen-unitateak bereiz daitezke: itsaslabarretako kostako habitatak, bailara atlantikoetako habitatak eta baso-masak. Hegoaldean, oster, bailara atlantikoetako habitatak eta landazabalekoak dira nagusi, baita baso-masak eta eremu antropizatuak ere.

Aztergai dugun eremuko ingurumen-balioak askotarikoak eta adierazgarriak dira, eta haien artean nabarmentzen dira Ulia kontserbazio bereziko eremuari dagozkion lurrak (ES2120014). Lur horiek Natura 2000 Sarearen barne daude, Batasunaren intereseko habitatak eta espezieak biltzen dituelako (Habitategi buruzko 92/43/EEE Zuzentarauaren I. eta II. eranskinetan jasotakoak), basa-hegaztiak kontserbatzeari buruzko 2009/147/EE Zuzentarauaren I. eranskinean jasotako hegaztien espezieak biltzen dituelako, eta hegazti migratzaileentzako atsedeneku eta bazkaleku delako. Ulian dauden flora eta fauna espezie ugari Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Katalogoan jasota daude, babes-maila ezberdinetan. Planaren eremuan nabarmentzekoak dira inguru gazi eta haizetsuko landare-komunitateak biltzen dituzten kostaldeko itsaslabarrak, *Armeria euscadiensis* endemismoaren populazioak biltzen dituztelako (EAEn zaurgarri gisa sailkatua). Bertan dauden Batasunaren intereseko habitaten artean, nabarmentzekoak dira 1230 habitata —landaredia duten itsaslabarrak—, 4040 lehentasunezko habitata —*Erica vagans* espezieko kostako txilardiak— eta 91E0* lehentasunezko habitata —*hartzadi eurosiberiarra* ur-ibilgu txikien inguruan—. Nabarmentzen dira, halaber, bigarren mailako hostozabal-baso gazteak (urkia, lizarra, gaztainondoa, haritza, ametza), ametz-kimuen gunek (*Quercus pyrenaica*) eta otadi-txilardi erako ordezte-sastrakak.

Ulian 130 hegazti espezie erregistratu dira, 46 familiatakoak; horietatik 30 Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Katalogoan jasota daude. Mendiaren iparraldeko itsaslabarretan habia egiten duten itsas hegaztien koloniak dira interes handieneko fauna-komunitatea; haien artean aipagarrienak dira ubarroi mottoduna (zaurgarria), belatz handia (arraroa), kaio iluna (interes bereziko), harkaitz-zozo urdina (interes bereziko) eta erroia/belea (interes bereziko). Era berean, landazabaleko eta baso-inguruko habitatetan zenbait hegazti, ugaztun, anfibio eta narrasti espezie identifikatu dira, baita flora espezie mehatxatuen populazioak ere.

Gainera, eremuak paisaia-balio handia dauka. Ilurgitako ipar-arroak oso paisaia-balio handia dauka eta EAEko Paisaia Berezien eta Apartekoen Katalogoan jasota dago. Eremuak kultura-balioko zenbait elementu eta eraikin hartzen ditu, hauek adierazgarrienak: Donejakue bidea (kultura-ondasun kalifikatua), Senekozulua itsasargia, Almirantearen gotorlekua, Uliako galtzada eta bidea, eta Platako itsasargia.

4. Jarduketak egiteko eremu desegokiak

EAEko Kostaldeko Lurralde Plan Sektorialak (LPS) babes zorrotz bereziko eremu gisa sailkatu du Sagues plataformaren eta Senekozulua itsasargiaren arteko itsaslabar-zerrenda. Aipatu LPSren 29. artikuluan jasota dagoen kostaldearen ertzetako arautze xehatuaren arabera, besteak beste, «D.8. Itsas pasealekuen eraikuntza» erabilera debekatuta dago lurzoru kategoria horretan.

5. Aurretiako kontsultetako erantzunen ingurumen-azterketa laburra

Jarraian, eraginpeko administrazio publikoei eta pertsona interesdunei egindako kontsulta-izapidean jaso diren txostenetako ingurumen-arloko eduki garrantzitsuenak laburbildu dira:

Planaren jarduketei eta Ulia kontserbazio bereziko eremuan izan dezakeen eraginari dagokionez, Monpasen oinezkoentzako pasabidea egiteko proiektuari (A.18 jarduketa) ingurumen-inpaktuaren adierazpena egin zitzaion Klima Aldaketaren Estatu Idazkaritzaren 2010eko apirilaren 22ko Ebazpen bidez. Ildo horretatik, aurretik aipatutako 21/2013 Legearen xedapen iragankorra aplikatu behar da, eta, hortaz, ingurumen-inpaktuaren adierazpenak galdua izango luke indarra, eta geldituta berezko dituen ondorioak. Horretaz gain, aipatu ingurumen-inpaktuaren adierazpena eman ondoren, Ulia kostaldeko zerranda kontserbazio bereziko eremu gisa sailkatu zen 2013. urtean, eta, aldi berean, hura Natura 2000 Sarean sartzea eragin zuten elementuak kontserbatzeko helburu, neurri eta arauak definitu ziren. Hortaz, oso kontuan izan behar dira bai Planaren ingurumen-ebaluazio estrategikoan, bai hartatik eratorritako proiektuetan.

Era berean, «A.17. Monpas puntan eta gotorlekuan oinezkoen sarbidea egokitzea» jarduketan eta aipatu A.18 jarduketan erabilera intentsiboko esku-hartzeak aurreikusten dira, eta horrek ez du koherentziarik Planak kontserbazio bereziko eremua babes berezikotzat sailkatzearekin. Monpaseko pasabidea eraikitzeak *Armeria euscadiensis* populazioari eragin diezaioke, eta kontserbazio bereziko eremuaren aisialdi-erabilera areagotu dezake. Hortaz, ondorioztatu da jarduketa biak ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntaren eremuan ebaluatu beharko liratekeela.

Bestalde, «A.15. Ibilgailu-sarbide nagusien antolamendua eta eraberritzea» eta «A.19. Tranbiaren bide zaharra berreskuratzea oinezko ibilbide irisgarri gisa» jarduketek ingurumenean eragin esanguratsua izan lezakete eta, hortaz, ingurumen-ebaluazioa egin behar zaie.

6. Ingurumen-azterketa estrategikoan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdien definizioa eta irismena

Ingurumen-azterlan estrategikoak abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. eranskinean ezarritako gutxieneko edukia izan beharko du, eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren II. eranskinean jasotakoarekin osatu beharko da. Lehen adierazitakoari jarraiki, Azterketak honako eskema metodologiko honi jarraitu beharko dio:

1. Proposatutako planaren deskribapena
 - 1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak
 - 1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena
 - 1.3. Planifikatzeko aukerak
2. Ingurumenaren ezaugarriak zehaztea
 - 2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena
 - 2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi esanguratsuak
3. Ingurumen-efektuak
4. Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak.
5. Ingurumena zaintzeko programa
6. Ingurumen-laburpena
7. Laburpen ez-teknikoa

Ebaluatzekoa den dokumentuaren ezaugarriak direla eta, uste dugu ingurumen-azterketa estrategikoak -aurrerantzean, Azterketa- behean azaltzen diren alderdiak landu behar dituela, bakoitzari ondoren adierazten den zabaltasun eta zehaztasuna emanda:

6.1. Planaren deskribapena

6.1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak

a. Azterketan Planaren helburu zehatzen laburpena jasoko da, hala natura-ingurunearen kontserbazioari dagokionez nola espazio horren erabilera ezberdinen antolamenduari dagokionez. Gainera, labur islatu beharko da nola hartu diren kontuan, Plana prestatzean, ebazpen honetako 2. apartatuan ingurumena babesteko jaso diren helburuak, printzipioak eta irizpideak.

b. Planaren gainetik dauden plan edo programak identifikatuko dira, haien helburuak eta determinazioak Planaren bidez garatzen baitira. Planaren xedearekin edo esparruarekin zerikusia duten plan edo programa horien determinazioak eta aurreikuspenak azaletik deskribatuko dira, baita Planari aplikatzen zaizkion ingurumena babesteko irizpide, helburu eta determinazioak ere. Zehaztu egingo da plan edo programa horiek ingurumen-ebaluazio estrategikoaren mende jarri ote diren, eta ingurumen-adierazpen estrategikoen erreferentzia aurkeztuko da, zer aldizkari ofizialetan argitaratu diren adierazita, kontsultatzeko gunerako esteka ere sartuta.

c. Bereziki kontuan hartuko dira Ulia kontserbazio bereziko eremuaren babes-helburu, -neurri eta -arauak, ekainaren 4ko 357/2013 Dekretuaren bidez onartutakoak; izan ere, dekretu horren bidez izendatzen dira Ulia (ES2120014) eta Jaizkibel (ES2120017) kontserbazio-eremu berezi, eta eremu horien kontserbazio-neurriak onartzen dira (2013ko azaroaren 25eko EHAA, 224. zk.).

d. Arauetan eta Planarekin hierarkia-loturarik ez duten bestelako planetan edo programetan finkatutako ingurumen-babeseko irizpideak, helburuak eta zehaztapenak adieraziko dira, aplikatu behar badira.

6.1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena

a. Planean espazioaren antolamenduari, erabileren arauketari eta baliabideen erabilerari dagokienez aurreikusita dagoena deskribatuko da, baita garapenerako jarduketa eta proiektuei buruzko aurreikuspenak ere.

Espazioa zer eremutan antolatuko den deskribatuko da Azterketan, zona bakoitzaren erabilera-erregimena zehaztuta. Erabilera intentsiboagoak izango dituzten eremuak zehaztuko dira bereziki, hala nola bide-azpiegiturak eta bestelakoak, ekipamenduak, aparkalekuak, hirugarren sektoreko eta aisialdirako instalazioak, etab. Era berean, zona bakoitzari aplikatu dakioken eraikuntza-erregimena ere zehaztuko da.

Ulia kontserbazio-eremu bereziaren barruko zonen antolamendua eta erabilera-erregimena koherentea izango da eremu hori izendatzean ezarritako zuzentarau eta arauekin. Hortaz, eremuaren erabilerari dagozkion baldintza, muga eta murrizketek Planean jasota egon beharko dute.

b. Planaren garapenean aurreikusitako proiektuak zehaztu beharko dira. Argi utzi beharko da Planak aurreikusten ote duen proiektu hauek egikaritzea:

- A.15. Sarbide nagusien antolamendua eta eraberritzea.
- A.17. Monpas puntan eta gotorlekuan oinezkoen sarbidea.
- A.18. Monpasen oinezkoentzako pasabidea.
- A.19. Tranbiaren bide zaharra berreskuratzea oinezko ibilbide irisgarri gisa.

Kasu guztietan eman beharko da informazioa haien tipologia, kokapen eta dimentsioei buruz (luzera eta eragindako azalera), baita lotura duten jarduketei buruzkoa ere. Ahal den neurrian, proiektua sustatzen duen organismo edo erakundea zein den adieraziko da, baita ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa —sinplifikatua edo arrunta— egin behar zaien ala ez ere.

Era berean, arautze honen irismena argitu beharko da: «3a. Erabilera ez-komenigarriak, salbuespenez soilik onargarriak, nekazaritza eta basogintza gaietako organo eskudunaren eta Natura 2000 Sarearen txostenarekin». Azalduko da ea halakorik ez egitea aholkatzen duen ingurumen-arloko arrazoirik dagoen ala ez, eta adieraziko da Planaren izapidetzearen zein unetan aurreikusita dagoen arauketan aipatutako organismoen txostena jasotzea.

Epigrafe honetan jasotako informazioa eskala egokian jasoko da kartografian, eta lurraldearen erabilera erakutsiko du, bai eta ingurumenean ondorio esanguratsuak eragin ditzaketen Planeko ekintzak, aurreikuspenak eta jarduketak ere. Hala badagokio, proiektuen kokapen eta tamainari buruzko informazio kartografikoa jaso beharko da.

c. Planean aurreikusitako jarduketa bakoitzarentzat, ingurumenari eragin diezaioketen ekintzak deskribatu eta kokatuko dira, eta garrantzi handikoenetik txikikoenera hierarkizatuko dira, haien kokapen zehatza, izaera eta magnitudea kontuan hartuta. Horrela deskribatutako Plan-ekintza bakoitzari kode bat esleituko zaio. Kode hori Azterketaren hurrengo apartatueta erabiliko da, baldin eta aipatu behar bada.

d. Planari aurreikusi zaion garapena adieraziko da, Plana behin betiko onartu ondoren, eta plangintzaren geroko faseak aipatuko dira, baita Planaren zehaztapenak ezartzeko tresnak ere. Aurretik adierazi denez, garapen-tresna ezberdinek —planak zein proiektuak— ingurumen-ebaluazioa bete beharko ote duten aurreikusiko da.

e. Nolanahi ere, Plana garatzeko denbora-aurreikuspena erantsiko da, eta, bidezkoa bada, aurreko apartatuan azaldutako ekintzetarako zehaztuko da.

6.1.3. Planifikatzeko aukerak

a. Plana formulatzeko prozesuan aurreikusitako alternatibak deskribatuko dira, eta haien ondorioen azterketa konparatiboa egingo da. Alternatiba horiek bideragarriak izan behar dute teknikoki eta ingurumenaren aldetik, eta alderdi hauei buruzkoak izan daitezke: kokalekua, garapen teknikoa, aldi baterako garapena, kudeaketa, antolamendua, baliabide naturalen erabilera edo beste edozein alderdi.

Hain zuzen ere, A.15, A.17, A.18 eta A.19 jarduketei dagokienez aztertutako alternatibak azalduko dira, 6.1.2.a) apartatuan adierazitakoak, baita inpaktua izan lezaketen jarduketa guztiei dagozkien alternatibak ere. Atal espezifiko batean, Ulia kontserbazio bereziko eremuan dauden edo bertan zein haren kontserbazio-xede diren elementuetan eragina izan dezaketen jarduketan alternatibak baloratuko dira.

b. Aztertutako plangintza-aukerak baztertzeko eta proposatutako aukera azkenik hautatzeko arrazoiak laburpena ere bilduko da.

c. Aztertutako alternatibak kartografikoki jasoko dira.

6.2. Ingurumenaren ezaugarriak zehaztea

Planaren eragin-eremuan ingurumen-kalitatearen elementuak deskribatuko dira, izan ditzaketen interakzioak kontuan hartuta eta ingurumenaren egungo egoeraren ikuspegi integratua emanda.

Ingurunearen kalitatearen alderdiei buruzko informazioa azterlanetan edo erreferentziako beste dokumentu batzuetan oinarrituta dagoenean, emandako datuen iturria identifikatuko da, izenburua, urtea, egilea eta, hala badagokio, lana osorik kontsulta daitekeen lekurako esteka adierazita.

Azterketak eskala egokiko planoak izango ditu, ingurunearen aldagaiak islatuta.

6.2.1. Ingurumen-egoera deskribatzea

Honako hauek izango dira, gutxienez, aintzat hartuko diren ingurumen-alderdiak:

a. Ingurune fisikoa. Zenbait faktore hartuko dira kontuan, hala nola arroka ama eta zorupea, haien iragazkortasuna, ur-masak eta -puntuak, klima-faktoreak eta lurzoru mota.

b. Natura-ondarea. Interes naturalistiko eta ekologikoko elementuak daudela adieraziko da: landaredia, baso autoktonoak, habitat interesgarriak, basoko flora eta fauna, ondare geologikoa, korridore ekologikoak, hezeguneak, onura publikoko mendiak eta mendi babesleak.

Ahal denean, inguruko flora eta faunaren espezieei buruzko datu kuantitatiboak emango dira, hala nola azalera, populazioaren tamaina, bikote edo banakoen kopurua eta garrantzi erlatiboa EAEko

edo haren banaketa-eremu naturaleko populazio osoaren azalera eta tamaina osoari dagokionez. Halaber, honako hauei buruzko datuak emango dira: kontserbazio-egoera, interes-maila, kalteberatasuna, egungo presio eta mehatxuak eta Plana gauzatzekoan areagotu daitezkeenak.

Planak Ulia kontserbazio bereziko eremuari eragin diezaiokenez, Azterketan honako informazioa txertatu beharko da:

- Kontserbazio bereziko eremua erakutsiko duen planoak.

- Gunea antolatze eta kudeatzeko tresnen aipamena, tresna horiek onartu dituen arau-xedapena eta argitaratu den aldizkari ofizialaren aipamena, bai eta kontsultatzeko lotura ere. Gunea kudeatzeko zeregina duen administrazio-organoa eta, hala badagokio, administrazio-unitatea identifikatuko da.

- Gunea izendatu eta babestea eragin duten balio nagusien deskribapen laburra, hala nola habitatak eta espezie edo elementu bereziak (geologikoak, paisaiakoak etab., EAEko zein Ulia kontserbazio-eremu bereziko kontserbazio-egoera, eta tokian identifikatutako presio eta mehatxu nagusiak. Ingurumen-ebaluazioa egiteko orduan, garrantzitsua da informazio ekologikoa ahalik eta eguneratuena izatea, hala kostaldeko habitatak karakterizatzeari eta mugatzeari dagokionez –adibidez, *Erica vagans* (4040*) kostaldeko txilardien kasuan–, nola eremuko espezieen populazioen tamainari eta atsedenteku zein habia-tokiei dagokienez, bereziki itsas hegaztien kasuan. Informazio hori Natura 2000 tokien planifikazio, kudeaketa eta jarraipenaz arduratzen diren organismoetatik jaso daiteke, baita Donostiako Udalarengandik berarengandik ere (Donostiako hegazti habiagileen atlas), edo bestelako iturrietatik.

c. Paisaia. Kontuan hartuko dira paisaia-intereseko zonak, hala nola mugarri bisualak eta pertzepzioaren ikuspuntutik interesgarriak izan daitezkeen beste elementu batzuk, paisaia-katalogoaren barrukoak.

d. Ingurumen-arriskuak eta -arazoak. Arriskuei buruz jaso ahal izan diren datu guztiak ekarriko dira, kontuan hartuta, besteak beste, lurpeko uren kalteberatasuna, arrisku geoteknikoak, klima-aldaketak eragindako arriskuak edo aipatzeko moduko beste edozein ingurumen-arrisku. Halaber, ikusitako ingurumen-arazoak deskribatuko dira, hauek direla eta: airearen, uraren edo lurzorua kalitatea, espezie exotiko inbaditzaileak, higadura-arazoak edo espazioaren erabileraren ondoriozko bestelako arazoak (aisialdia, basogintza, abeltzaintza, ehiza, etab.).

e. Kultura-ondarea. Hautemandako elementu bakoitzaren garrantzia, zaugarritasuna, tresna eta babes maila adieraziko dira. Era berean, kultura-ondasunari kalifikazioa eta babes ematen dizkion arau-xedapena ere aipatuko da. Kontuan hartuko dira ondare immaterialeko elementuak.

6.2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi esanguratsuak

Aurreko atalean azaldutako deskribapen eta datuetan oinarrituta, ebaluazio-eremuko ingurumenaren egungo egoera aztertuko da, eta labor-labor jasoko dira ingurumen-ebaluaziorako prozesuan garrantzitsuak diren ingurumen-alderdiak. Zehatz-mehatz adieraziko da zer ingurumen-alderdik jasan dezaketen etorkizunean Planeko ekintzen eragina.

Informaziorik adierazgarriena laburbilduko da Ulia kontserbazio bereziko eremuko gune babestuari, itsaslabarrei eta kostaldeko habitatei buruz, funtsezkoak baitira espazioan ohikoak diren eta bertan habia egiten duten itsas hegaztien funtzio ekologikoa edo ziklo biologikoa mantentzeko (elikadura, ugalketa, atsedena, dispersioa). Kontuan hartuko dira, halaber, lehentasunezko beste habitat eta espezie batzuk, bakanak edo gutxi ordezkatuak, kalteberak edo desagertzeko arriskuan daudenak eta, beraz, gunearen erabilerak antolatu eta arautzerakoan babestu beharrekoak.

Kontuan hartuko da Planaren eragin-esparruaren ingurumen-ezaugarriek izan lezaketen bilakaera, eta areta berezia eskainiko zaio Planaren indarraldian espero den klima-aldaketari, baita plana aplikatzen ez bada ere.

Atal honetan, gainera, egon daitezkeen beste ingurumen-baldintzatzaile batzuk landuko dira, baldin eta Planaren ingurumen-ebaluaziorako garrantzitsuak badira, hala nola gunearen erabilera-intentsitatea, mugikortasunari eta garraioari buruzko alderdiak, zonetako irisgarritasun-baldintzak beren urrakortasun-mailaren arabera, baliabide berriztagarrien eta ez-berriztagarrien kontsumoari lotutako beharrak, jendea bizi den zonarik ba ote den, eta eragina jasan dezakeen biztanleria eta abar.

6.3. Proposatutako planaren ingurumen-efektuak

a. Atal honetan, Planean bilduriko ekintzek Azterketaren 2. apartatuan deskribatutako ingurumen-kalitateko elementuetan izan ditzaketen ondorio edo efektuak identifikatu eta baloratu beharko dira, ondorio horien ezaugarriak deskribatuta. Planaren ondorioak identifikatu eta karakterizatzeko, lanean aurreikusitako ekintzen eta eragin ditzaketen ingurumen-elementuen ezaugarri espezifikoaren arteko interakzioak aztertuko dira, baita sor daitezkeen edo larriagotu eta areagotu daitezkeen ingurumen-arazoak eta -arriskuak ere.

Ezaugarrien deskribapenean zehatz eta argi adierazi beharko da zer motatako efektua den, honako hauek bereizita: zeharkako efektuak, metatze-efektuak, efektu sinergikoak, epe labur, ertain eta luzerako efektuak, efektu iraunkorrak eta aldi baterako efektuak.

Azterketaren 6.1.2.c apartatuan identifikatutako ekintza guzti-guztien ingurumen-ondorioak deskribatuko dira, atal horretan ekintzei esleitutako kodea berariaz aipatuta. Hala dagokionean, zenbait ekintzaren konbinazioetik eratorritako efektuak zehaztuko dira. Era berean, ingurumen-izaerako edozein efektu bereiziko da, baldin eta biztanleriaren, giza osasunaren edo ondasun materialen gainean ondorio kaltegarri eta nabarmenak izan baditzake.

Identifikatu beharko da Planean aurreikusitako jarduketek zer ondorio izan dezaketen Ulia kontserbazio bereziko eremuko elementuetan, baita Azterketaren 2.1 apartatuan jasotako beste elementu babestu batzuetan ere, hala eraikuntzaren nola ustiapenaren faseetan. Kasu horretan, atal hori xehetasun-maila jakin batekin garatuko da, aurreikus daitezkeen efektuak behar bezala identifikatzeko eta afekzioaren inguruan egon daitezkeen ziurgabetasunak argitzeko. Horretarako, naturaren kontserbazioaren arloan eskumena duten erakundeek argitaratutako gida metodologikoak eta, oro har, onartzen diren beste dokumentu tekniko batzuk aplikatuko dira. Sustatzaileak Natura 2000 Sareko lekua edo babesgunea kudeatzen duen organoaren irizpen edo txostena badauka, eta horretan ebazten bada Planak ez duela espazioan eragin nabarmenik izango, Azterketan sartu beharko du.

Era berean, ingurumen-izaerako edozein efektu bereiziko da, baldin eta biztanleriaren, giza osasunaren edo ondasun materialen gainean ondorio kaltegarri eta nabarmenak izan baditzake.

Horrela deskribatutako Plan-ondorio bakoitzari kode bat esleituko zaio. Kode hori Azterketaren hurrengo apartatueta erabiliko da, baldin eta aipatu behar bada.

b. Identifikatu eta kodetutako ondorio edo efektuak baloratzeko, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan, besteak beste:

- Gertatzeko probabilitatea, iraupena, maiztasuna eta itzulgarritasuna.
- Efektu edo ondorioen larritasuna eta irismen espaziala.
- Eragina jasan lezakeen eremuaren balioa eta kalteberatasuna, honako hauek kontuan hartuta:
 - Natura-, kultura- eta paisaia-ezaugarri bereziak.
 - Aurkako ingurumen-baldintzak, airearen, uraren edo lurzorua kalitate-estandarrek edo muga-balioak gainditzeko moduan.
- Planak zein neurritan sortu edo areagotu ditzakeen ingurumen-arriskuak.

Ahal den guztietan, ondorioak zenbatetsiko dira, datu neurgarriak erabilita, Planean aurreikusitako jarduketak eta proiektuak gauzatzearen ondorioz deskribatu diren ingurumen-faktoreen egoera-

aldaketei buruzkoak. Hala badagokio, ondorio edo efektu horien iragarpenean dagoen ziurgabetasun-maila adieraziko da.

c. Halaber, ahal den neurrian, ondorioak kartografia bidez lokalizatuko dira, eta, orobat, zehaztu egingo da plan edo programaren zer fasetan gerta litezkeen, aurreikuspenen arabera.

d. Detektatutako ondorioa ekarriko duen ekintza horrek Planeko determinazioak beste plan eta programa batzuetan sartzea eskatzen duen adieraziko da, eta kasu bakoitzean eragindako planifikazio tresna zehaztuko da.

e. Hala deskribatutako ingurumen-ondorio edo efektuak hierarkizatu egingo dira, haien garrantzi erlatiboa nabarmentzeaz gain.

6.4. Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak

a. Apartatu honetan deskribatuko dira neurri batzuk, Azterketaren 3. apartatuan aurreikusitako ingurumen-ondorio kaltegarriak prebenitu, murriztu eta, hala badagokio, konpentsatzeko. Hartuko diren neurriek bermatu egin beharko dute ez dela ingurumen-ondorio esanguratsurik sortuko, Planaren ekintzak garatzearen eta etorkizunean gauzatzearen ondorioz. Helburu izango dute natura-baliabideak, natura- eta kultura-ondarea babestea, natura-arriskuak prebenitzea eta atzemandako ingurumen-arazoen aurrean hobetu eta egokitzea.

b. Proposatutako neurriek koherenteak izan beharko dute aurreikusitako ingurumen-ondorioekin. Neurriak deskribatu egingo dira, eta 3. atalean identifikatutako ondorio edo efektuekin –prebenitu, zuzendu edo konpentsatu nahi direnekin– lotuko dira. Bereziki, eta beste batzuen artean, honako neurri hauek zehaztuko dira:

- Ulia kontserbazio bereziko eremu bera eta kontserbatu beharreko elementuak babesteko neurriak. Adieraziko da ekainaren 4ko 357/2013 Dekretuan, kontserbazio bereziko eremu izendatzekoan, aurreikusitako zer prebentzio- eta zuzenketa-neurri txertatu diren Planean. Ildo horretatik, Planak barnean hartu beharko ditu neurri batzuk, kostaldeko habitatak zorrotz babesteko eta haien narriadura saihesteko, itsaslabarretako faunari eta florari eragozpenik ez sortzeko, eta, ahal den neurrian, kontserbazio-egoera hobetzeko. Horrekin lotuta, higadura-arazoak dituzten zonak lehengoratzeko neurriak hartuko dira, baita landaredi narriatua dutenak eta espezie inbaditzaileak jasan dituztenak ere.

- Espazioaren erabilera antolatzeko neurriak. Hala, erabilera publikoa gaitasun handiena duten zonetara bideratuko da, zonarik kalteberenetan intentsitatea murrizteko neurriak ezarrita.

c. Proposatutako neurriak planaren zein zatitan txertatu diren adieraziko da, eta berariaz zehaztuko da neurri horiek planean bildutako zein dokumentu teknikotan jaso diren.

d. Hala badagokio, prebentzio, zuzenketa eta konpentsaziorako neurriak proposatuko dira, plangintzaren geroagoko fase edo etapetan edo Plana gauzatzeko etorkizunean diseinatuko diren proiektuetan aplikatzea komenigarri edo egingarria denean.

e. Kostu ekonomikoren bat dakarten prebentzio eta zuzenketarako neurrien aurrekontua ere jasoko da, horiek gainbegiratzeaz arduratuko den agentea edo pertsona adierazteaz gainera.

6.5. Ingurumena zaintzeko programa

a. Azterketak ingurumena zaintzeko programa bat garatuko du, eta, bertan, Planaren aplikazioaren ondorioak berrikusteko aurreikusitako neurriak deskribatuko dira. Neurri horiek alderdi hauek kontrolatzera bideratuko dira:

- Planak ingurumenean izan ditzakeen ondorio kaltegarriak prebenitu, murriztu edo zuzentzeko aurreikusita dauden neurriak behar bezala ezartzen diren gainbegiratzea.

- Ingurumen-elementu garrantzitsuen bilakaera zaintzea, baita Plana martxan jarri aurretik zeuden ingurumen-arazoaren bilakaera ere. Ildo horretatik, egokiak izan daitezke kontserbazio bereziko eremu izendatzerakoan diseinatutako zenbait jarraipen-neurri.

- Plana gauzatzearen ondoriozko ingurumen-ondorioak egiaztatzea, aurreikusi gabeko efektu kaltegarriak azkar identifikatzeko eta horiek saihestu edo zuzentzeko neurri egokiak hartu ahal izateko.

- Plana egikaritzeko aurreikusitako garapen-tresnetan eta proiektuetan prebentzio- eta zuzenketa-neurri osagarriak hartu behar den aztertzea.

b. Jarraipen-neurriak bat etorriko dira Azterketaren 4. apartatuan jasotako babes, zuzenketa eta konpentsaziorako neurriekin, haiekin identifikatuko dira.

c. Ingurumena zaintzeko programak Azterketan proposatzen diren adierazleak jaso beharko ditu, baita –kasu bakoitzean– datuak biltzeko erabiliko diren aldizkakotasunari eta metodoei buruzko proposamen zehatz bat ere.

6.6. Ingurumen-laburpena.

a. Atal honetan, ingurumen-alderdiak planean txertatzeko modua deskribatuko da. Xehetasunez aztertuko da nola hartu diren kontuan eta nola betearazi diren ingurumena babesteko ezarritako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak, Azterketaren 1.1 apartatuan deskribatutakoak.

b. Aztertuko da zer probabilitate-gradutan eragin diezaiokeen Planak. Ulia kontserbazio bereziko eremuari eta eremuan kontserbatu beharreko elementuei.

c. Aztertu da, gainera, zenbaterainoko arriskua dagoen Planak etorkizunean ingurumen-ondorio adierazgarriak izateko, eta beharrezko argudioak emango dira, egiaztatzearen ezean, proposatutako babes-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak planean txertatuz gero, probabilitate oso txikia egongo dela ondorio esanguratsu horiek jazotzeko eta, ondorioz, ez dagoela eragozpenik plana garatzeko. Ondorio hori zertzeko, Azterketaren gainerako apartatuetan jasotako informazioei buruzko erreferentzia egokiak erabiliko dira.

6.7. Laburpen ez-teknikoa.

a. Azterketak barnean hartuko du emandako informazioaren laburpen ez-tekniko bat, eta ebaluazio-prozesuan jorratutako gaietako prestakuntza espezifikorik ez duten pertsonek erraz ulertzeko moduan idatzita egon beharko du laburpen horrek.

b. Atal honi, gainera, egindako ebaluazioa hobeki ulertzen lagunduko duen informazio grafikoa ere erantsi beharko zaio edo, bestela, informazio hori erraz eskuratzeko behar diren erreferentziak jaso beharko dira.

7. Jendaurreko informazioko izapideak eta kontsultak.

Urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, organo sustatzaileak jendaurreko informazioaren izapidearen eraginpean jarriko du plan honen hasierako bertsioa, ingurumen-azterketa estrategikoarekin batera; gutxienez, 45 egunez.

Era berean, kontuan hartuta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikulua eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 22. artikulua zer xedatzen den ukitutako administrazio publikoei eta interesdunei egin beharreko kontsultei buruz, erakunde eta pertsona interesdunen zerrenda hau hartuko da kontuan:

- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Hirigintza eta Hiri Berroneratze Zuzendaritza.
- URA. Uraren Euskal Agentzia.
- IHOBE - Ingurumena Kudeatzeko Sozietate Publikoa.
- Mendiak eta Habitata Kudeatzeko Zerbitzua, eta Fauna eta Flora Zerbitzua, biak Gipuzkoako Foru Aldundiaren Mendietako eta Natura Ingurune Zuzendaritzarenak.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritzako eta Landa-garapeneko Zuzendaritza.
- Pasaiaiko Udala.
- Gipuzkoako Kostalde Zerbitzu Probintziala. Trantsizio Ekologikorako Ministerioa.
- Trantsizio Ekologikorako Ministerioaren Kostaldearen eta Itsasoaren Jasangarritasuneko Zuzendaritza Nagusia.
- Trantsizio Ekologikorako Ministerioaren Ingurumen-ebaluaziorako Azpizuzendaritza.
- Pasaiaiko Portu Agintaritza.
- Eguzki
- Gipuzkoako Ekologistak Martxan.
- Haritzalde
- Aranzadi Naturzaleen Elkartea
- Itsas enara ornitologia elkartea.
- Ugatza ornitologia elkartea.
- SEO Birdlife Donostia

8. Dokumentazioa aurkezteko jarraibideak.

2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 16. artikulua arabera, kualifikazio profesionala eta goimailako hezkuntzari buruzko arauen arabera behar besteko gaitasun teknikoa duten pertsonak egin beharko dute Azterketa, eta Legearen eskakizunak betetzeko behar den kalitatea izango du. Azterketan pertsona horiek identifikatu beharko dira, eta haien titulazioa eta, hala badagokio, lanbide arautua adierazi. Identifikazioak barne hartu beharko ditu izen-abizenak eta nortasun-agiri nazionalaren edo helburu bererako beste edozein agiriren kodea (elkargokide-zenbakia entregatuz gero, horrek bat etorri behar du elkargo profesional jakin baten erregistroarekin). Gainera, amaiera-data eta pertsona horien sinadura jasoko dira. Azterketaren edukien eta informazioaren fidagarritasunaren erantzule izango dira, salbu eta Administrazioetik era fidagarrian jasotako datuei dagokienez.

Dokumentazioa aurkezteko, jarraibide hauek bete beharko dira:

1. Ingurumen-adierazpen estrategikoaren eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentuek behar den koherentzia errespetatu beharko dute, bai haien artean bai aurretik aurkeztutakoekin, halakorik bada; hartara, ez da oztopatuko erabakia hartu behar duten administrazio-organoen lana, baizik eta erraztu.
2. Arreta berezia jarri beharko da kasu bakoitzean adierazteko datu batzuk, dokumentu teknikoan apartatu desberdinak elkarrekin erlazionatzeko aukera emango dutenak (esaterako, atal batean planeko ekintzak deskribatzen badira eta beste batean ekintza horiek eragindako ingurumen-inkaktuak, bi kasuetan aipatu beharko dira ekintzak izen berarekin).
3. Beharrezkoa bada, adierazi behar da zein iturritatik lortu diren datuak.

4. Planaren, programaren edo proiektuaren dokumentazio grafikoa eta kartografikoa sartu behar da hala eskatzen duten apartatueta. Planoak pdf formatuan entregatu beharko dira, geoerreferentziatuta.
5. Análisi tekniko egokia errazteko, bistartzeko pdf formatuko artxiboez gain, planoen kopia gehigarri bat entregatu beharko da *shape* formatuan (ahal dela, UTM30N ETRS89 erreferentzia-sistema erabilita), zeinak ezingo baitu 10 Mb gainditu. Shape fitxategi horretan, 4 fitxategi hauek ZIP fitxategi batean entregatuko dira konprimatuta: .shp, .shx, dbf, .prj.

Lau fitxategiak bilduko dituen «eremua.zip» shape konprimatuaren adibidea:

- eremua_adibidea.shp
- eremua_adibidea.shx
- eremua_adibidea.dbf
- eremua_adibidea.prj

6. Plano guztiak kodea eta titulua jarrita identifikatu behar dira. Halaber, honako hauek adierazi beharko dira: irudikatutako datuak zuzen interpretatzeko behar diren azalpenak eta sinboloak; eskala grafikoa eta zenbakizkoa, inprimatzeko formatua adierazita; sinadura eta noiz egin den.
7. Jatorrizko eskalatik murriztutako planoak aurkeztuz gero, zuzendu egin beharko da planoan jatorrian adierazitako eskala, aurkeztutako planoan oinarritutako neurketek ez dezaten izan akatsik.
8. Dokumentazioarekin batera aurkeztuko dira testuetan zehar aipaturiko eranskin, irudi, plano edo argazki guztiak. Erreferentzia horiek argi eta garbi jarri behar dira, kasuan kasuko elementua erraz aurkitzeko moduan.
9. Informazio jakin bat dokumentuko apartaturen baten zuzenketa gisa aurkeztekotan, eta aldi berean zuzendu nahi den atala espedientean mantentzen bada, informazio berriak adierazi beharko ditu zuzenketa onduz jatorrizko dokumentuan ezeztatutaz edo ordezkaturaz jo beharreko kapituluak, orrialdeak, epigrafeak, apartatuak, lerroak, esaldiak, koadroak, irudiak, planoak eta abar. Aurreko informazioaren bat osatzen edo zuzentzen duen informazioak egoera horren berri eman beharko du hasieran. Aipaturako jarraibideak betetzen ez badira eskaera bat zuzentzeko, litekeena da izapide gehigarri bat behar izatea, kontraesanezko edo inkongruente izan daitezkeen alderdiak argitzea, eta horrek atzerapena eragin dezake prozeduraren ebazpenean.
10. Eskaera IKS-eem sistemaren bidez aurkeztu beharko da, aplikatzekoak diren fitxak eta formularioak erabilita. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren webgunean eskura daitezke, helbide honetan zehazki: <http://www.euskadi.eus/informazioa/ingurumenari-buruzko-izapide-elektronikoen-gida/web01-a2inguru/eu/>
11. Dokumentu bat .pdf formatuan aurkezten denean, gehienez 30 MB izango ditu eta bilaketak egitea ahalbidetu beharko du. Dokumentu handiagoak zatitu egin beharko dira, sisteman sartuko badira.
12. Aurkeztutako dokumentazio guztiaren aurkibidea txertatuko da, adierazitako ataletako bakoitza zer orrialdetan dagoen zehazteko. Pdf dokumentu baten aurkibidea aurkeztean, adierazitako orrialde-zenbakia bat etorri beharko da orrialde hori aurkitzeko irakurketa-programaren «Joan orrialde honetara» aginduan adierazten denarekin.
13. Organo sustatzaileak, datuak igortzean, datu pertsonalak babesteari buruzko araudia betetzen duela bermatu beharko du beti.

Bigarrena. Ebazpen honen berri ematea Donostiako eta Pasaiako Udalei.

Hirugarrena. Ebazpen hau Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren webgunean argitara dadin agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko otsailaren 17a.

Ingurumen Administrazioaren zuzendaria
El Director de Administración Ambiental



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA
ETA BIXAGAZITZA SAILA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
RURAL Y AGROPECUARIO

MARIA ELENA MORENO ZALDIBAR

<i>Ingurumeneko sailburuordea, ABSENTZIAZ.</i> (Apirilaren 11ko, 77/2017 Dekretuaren Lehenengo Xedapen Gehigarria)	<i>Viceconsejera de Medio Ambiente, POR AUSENCIA.</i> (Disposición Adicional Primera Decreto 77/2017, de 11 de abril)
--	---